



ekogunea
kutxa FUNDAZIOA



BIHOTZ
BERDEAK



ekogunea
kutxa FUNDAZIOA



aranzadi
zientzia elkarte



Partaideen hautapena

Bihotz berdeak programan parte hartzeko hautaketa prozesua egingo da. Naturarekiko interesa, sentsibilitatea eta jakin mina duten 30 gazteen bila gabiltza; motibazio handiko gaztetxoak, ibilbide osoa egiteko prest daudenak.

Hautaketa prozesuan izena emateko aukera **uztailaren 29tik irailaren 15 arteko epean** izango da.



Hautaketa prozesua

1. Programaren informazioa izango dute eskura Kutxa Ekoguneko eta Aranzadi Zientzia Elkarteko web orriari.
2. Kutxa Ekoguneko web orriaren bidez hautaketa prozesuan izena emateko aukera izango dute.
3. Uztailaren 29tik irailaren 15 arteko epean aurreinskripzioetan hurrengo pausoak jorratuko dituzte:

a. **Izena ematean fitxa bat beteko dute:**

https://online.ekogunea.eus/ekomuslink/casals/activitats.jsp?nom_cache=EKOGUNEA&property=EKOGUNEA&grup=10&lang=1



b. **Galdetegia.**

Fitxa bertan egiten zaizkien galderei erantzungo dute.



1. Eskuetan eduki al duzu inoiz xomorrorik? Zein?
2. Inoiz ikusi al duzu ugaztun baten aztarnarik basoan?
3. Zein da zure ametsetako bidaia?
4. Zure gelan natur- elementurik ba al duzu? Lumak, xomorroak, hostoak...
5. Gustatuko al litzaizuke gau ilunean animaliak behatzera joatea?
6. Animalia bat bihurtu nahiko bazenu, zein eta zergatik?
7. Ezagutzen al duzu naturalista baten izena?
8. Atsegin al duzu irakurtzea? Zein liburu mota atsegin duzu gehien?
9. Handitzean zer izatea gustatuko litzaizuke?

c. **Bihotz berdea** izan nahi dut!

Motibazio eskutitzak orrialde erdi bateko luzapena izango du, gutxi gorabehera.

Norberak bere burua aurkeztu eta zergatik izan nahi duen **Bihotz berdea** idatzi beharko du.

d. **Erronka!**

Aukeratu bi hauetatik froga bat eta burutu ezazu.

- **1 froga:**

Aukeratu hiru ugaztun hauetatik bat aukeratu (saguzarra, trikua edo urtxintxa). Non bizi da? Zertaz elikatzen da? Non egiten du bere etxetxea? Zein materialekin? Joan zaitetz basora, eraiki ezazu berari ondoen egokitzen den babesleku bat inguruko materialekin eta bidali argazki bat gure emailera.

- **2 froga:**

Egunsentian edo iluntze partean, hurbildu baso edo parke batera eta grabatu bertan entzuten diren soinuak mugikor batekin.

Bigarren audio batean, konta iezaguzu entzun duzuna natur-dibulgatzaile famatua zen Felix Rodriguez de la Fuenteren hitzegiteko modu bereziarekin.

Ez dakizula nor zen Felix Rodriguez de la Fuente?

Bidali bi audioak gure emailera.

Epai-mahaiaren osaketa, hautapen irizpideak eta prozesua, epea bukatzean argitaratuko dira.